

a u z o z a u z o

altza

Uda Mendigorria eta Altza artean

Uda hurbiltzean, Altzako Atsedeen Taldeak ekintza bereziak prestatu dituzte, urtaro honek eskaintzen dituen abantaila guztiak aprobetxatzeko asmoz.

Urtean zehar atsedeen taldeetako arduradunek Altzarako bertarako antolatzen dituzte joku eta bestelakoak eta uda garaian kanpora irtetzeko gogoz izaten dira.

Honela, Adiskideak Atsedeen Taldea Nafarroako Mendigorria herrira hurbilduko da. Adiskideak Taldeko arduradunek herri honetan etxe polit bat lortu dute Altzako gaztetxoentzat.

Udaleku hauek 10-13 urte bitarteko haurrentzat antolatu ditu Adiskideak taldeak eta lehen bait lehen izena ematea komeni da. Irteeraren prezioa aldakorra da, baldin eta haurrak Adiskideak Atsedeen Taldearen bazkide diren ala ez. Bazkideek 11.000 pezeta ordaindu beharko dute eta bazkide ez direnek berriz, 12.000 pezeta. Prezio honetan sartzen dira bazkaria, logela eta haurrentzat beharrezko diren zer-

bitzu guztiak.

Bestalde, 12 urte arteko haurrek, kanpora irten nahi ez badute, Altzan geratu eta ondo pasatzeko aukera izango dute ROTETA LUDOTEKAREN eskutik uztaila osoan zehar. Udaleku ireki hauetan 5-12 urte bitarteko haurrek parte hartu ahal izango dute gero talde txikiagotan lan eginez. Udalekuak goiz eta arratsaldean izango dira, hain zuzen goizeko 9.30-etatik 13etara eta 16etatik 19etara.



Kanpora aterako ez diren haurrentzat ere izango da aukerarik Altzan.

h e r r e r a

Herrerako jaien memoria

aurtengoan berriro ere irakurri ahal izan dugu, eskuzko Jai Egitarauan jendeak ez duela zuzenki parte hartzen gure auzoan ez jaien antolaketan zein beste arloetan antolatutako ekintzetan. Baina egia esan 1994. urtea nahikoa adierazgarria izan da herreratarguztientzat, jendeak zuzenez hartu du parte jaietan erabat inplikaturik. Egia da bestalde, Herrerako jaiak nahikoa urte zailak iragan dituztela, behet-

ra egin zuten nabarmen, jendeak auzoarekiko identifikazioa galdu zuen heinean. Baina zorionez poliki-poliki Herrerako biztanleak konturatu dira auzoagatik bertakoek lan egiten ez badute inork ere ez duela egingo, eta hori eskertzekoa da. Guztiei Zorionak.

Axisklo Burgosen

Herrerako Axisklo Atsedeen Taldea «Barbadillo de Herreros» Burgoseko herrira joan zen lehengo astean. Haur eta

gazteak motxila handiak bizkarrean hartuta, uztailaren lehen egunean, Herrerako eliza aldera hurbildu ziren eta bertan autobusa hartu ondoren, Udalak Burgosen udalekuak eta taldeak biltzeko egokitua duen etxera abiatu ziren. Udalekuak irauten dituen 14 egunetan jokuak eta etxekolanak egiten ikasiko dute besteak beste eta ingurugiroa behar duen errespetua erakutsiko zaie guztiei «Sierra de la Demanda» bezalako leku batek eskaintzen duen aukera guztiak aprobetxatuz.

LARRAITZ GARMENDIA (Tfnoa.: 391267)

Z

CALZADOS ZABALO

Oinetakoak - Poltsak
eta osagaiak

Larratxo 16,
☎ 39 14 15 DONOSTIA

Ostarte

Tfnoa.: 45 36 74
DONOSTIA

marina
BAR